

NERE ALTUNA, RIKARDO BADIOLA ASPALDIKO EZAGUNAK ETA ADISKIDEAK

Bilbo, egoitza, 2001-XI-30

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Aspaldiko ezagunak diodalarik azpimarratu nahi dut aspaldi hori hogeita bost urte direla hain zuzen, mende laurden bat, ez baita guti. Ez naiz oroit noiz sortu ginuen Euskaltzaindian lanean ari direnentzat hogeita bost urteren epearen ospatzea. Oroit naiz halere lehenbizikoz izan zirela Jose Luis Lizundia eta Maria Pilar Lasarte, gero izan zirela Rosa Mari Artza zorigaitzez mundu honetarik joana eta Juanjo Zearreta.

Egun etorri da beste hauei bezala zuei ematea zilarrezko domina hogeita bost urteren lekukotasuna. Ez ditut orain erranen xeheki zein diren zuen merezimenduak. Nere Altuna, Bibliotekan egin duzun lanari esker, eta hori eguneroko lan ixila, bai Jose Antonio Arana Martijarekin, bai Pruden Garciarekin Euskaltzaindiaren bibliotekak hartzen du ikertzaleen artean merezi duen tokia.

Rikardo Badiola, zure lan ixilari esker zenbait eta zenbait liburu ez ditu argitaratu Euskaltzaindiak: *Euskera* aldizkaria bera bizpahiru aleekin urtean, Iker sailekoak, Onomastikonekoak, Lekukoak deritzan sortakoak, Gramatikaren liburukiak eta bertze...

Hogeita bost urte iragan dira. Denbora doa laster, enetzat lasterregi, baina atzera doalarik soa, ikus daiteke zer lan baliosak egin diren, azken mende laurden honetan. Hori, euskaltzainburu gisa aitortzen dut egin dela ere zuen lan ixilari esker.

Zorionak bihotz bihotzetik.

OMENALDIA

Nere Altuna eta Ricardo Badiola Uriarte-ri Euskaltzaindiak Zilarrezko 'domina' eskaini Erakundearen 25 urte lanean / beharrean beteteen.

Euskaltzindiko hileroko batzarra eten egin dute eguerdiko ordubietan eta, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, euskaltzain oso, bulegoko lankide eta Atalseko batzordeko zenbaitzuren aurrean, laudoriozko zenbait hitz esan ditu omenduen 'lan-merituak' kontuan harturik, alegia: Nere Altunak Euskaltzaindiaren barruan burutu eta burutzen duen lanbidez mintzatu zaie bilduei eta jarraian Ricardo Badiola Uriartek egindako ibilbidez.

Laudoriozko hitzen ondoren zilarrezko domina bana eskaini die omenduei Pello Telleria lankideak argazki batzuk egin dituen bitartean.

Eta jarraian berba hartu du Ricardo Badiola Uriartek eta honela mintzatu zaie:

ESKER ONEZ

Jaun-Andreoi, guzti-guztiori, egunon eta agur. Hiru edo lau hitz Nere Altuna lankidea eta nik neure izenean.

Lehen eta behin eskerrik asko eskaini gura dizkiegu guk geure guraso eta arbasoei eta egun daukagun familia osoari.

Eta jarraian, **J. L. Lizundiari**, egungo idazkariorde eta kudeatzaileari berau izan baita Euskaltzaindian lanean 1969an, egunerdez eta, gero, 1972an hasita, egun osoz, egungo Euskaltzaindiaren oinarri eta akululari, bultzatzaile eta apurka-apurka Euskaltzaindiaren inguruan lankideak topetan ahalegindu eta hainbat aurkitu eta fitxatu dituenari bai Erakunde lankide finko izateko eta bai hainbat eta hainbat batzorde desberdinetan lanean jarduteko.

Eta alde-berberean, Donostian, **Maria Pilar** Lasarte lanean aritu izan zaigu, nahiz eta gaur egun, dakizueenez, jubilatua dugun.

Gero, handik denbora gutxira, iritsi eta fitxatu zuen Jose Luisek **R. M^a Artza**, hasiera-hasieratik egungo Kudeatzailearen euskarri zintzoa eta gero guk, gure inguruan, Argitalpen banaketa-salmentan, hainbat urtez, zintzo eta

leialki Erakundearen alde lan egin zuenari eta urte honen hasieran- 2001.eko otsailaren 25ean- joan zitzaigun, minbiziak jota. (Goian bego).

Ondoren, **Juanjo Zearreta**, Erakundeko finantza eremuan hainbat eta hainbat neke, estutasun eta bide urratu duena eta Argitalpen eremuko gora-beheretan horrenbeste lagundu gaituena Euskaltzaindian eta, Erakundetik aparte ere anitzetan eskua bota diguna.

Nere Altuna, Euskaltzaindian lanean hasi ginenean, Erribera kaleko egoitzan, bideak urratsen, kudeatzen eta zeregin teknikoetan laguntzaile erara... eta itzulpen eta argitalpen sailean, hasiera batean itzulpen eta kontsulta esparrua guk geuk eramaten baikenuen... ordu neketsuetan eta sarritan lankide leiala izan dudana, nahiz eta, azken urteotan, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako lankide izan.

Begoña Amundarain, hasiera baten AEK-an aritu izan zitzaigun behar-errea eta gero, gure Erakundean jarraitu du hainbat eta hainbat txosten, idazki, gutun eta ziurtagiri makinaz eta ordenagailura eraman eta, baita, hainbat eta hainbat aldiz kanpoko jendeari arreta eskaini bulegoko beste lankideei eskua bota eta laguntza eskainirik.

Eta, hemen ez ditugu hurrengo aipatuko ditugunon merituak baztertu ez eta ez eta aipatzekelaga, luzeegi ez egiteagatik; baina bai izendatu ditugu, eguneroko lanean lankide eta laguntzen gaituenak. Guk geure ingurutik hasita, eskua bota, babestu, lagundu eta ordu on eta latzak alkarrekin jasan eta gozatu ditugunok eskertu gura ditugu, hots:

Lutxi Alberdi, Resu Orbe, Jose Antonio Arana Martija (nahiz eta orain jubilatua izan), **Josune Olabarria, Itziar Rekalde, Cristina Arana, Jon Artza, Gema Insausti, Marisa Goikoetxea, Pello Telleria, Prudentzio Garzia, Emilio Porrás, Annie Etxeberri, Iñaki Kareaga**.

Eta nola ez, batzordeetakoak, alegia:

Atlasekoak, *Orotariko Euskal Hiztegikoak*, Onomastikakoak, batez ere, **Mikel Gorrotxategi**, Onomastika eremuko bekaduna.

Gramatikakoak, Literaturakoak...

Eta hemen, ezin aipatu barik laga, Euskaltzaindiko kazetari lanetan laguntzen gaituen **Amaia Okariz** andrea.

Guzti-guztiori gure eskerrik zintzo eta bihozkorrenak.

* * *

Bigarren: Mila esker: **L. Villasanteri**, urte askotan Oñatiko Arantzazura jo izan baikenuen gure Maisu eta gidariarengana eta Harengandik lekzio uga-

ri jaso izan baitugu: Eskerrik asko Luis Villasante eta gure alde egin (Goian bego).

Alfonso Irigoien jaunari, gure irakasle eta aztertzaile-kide urte luzez, Harrengandik hainbat eta hainbat ikasgai eta ohar jaso izan baikenuen.

Eta hemen ezin dugu ahantzi gure **Koldo Mitxelena**, irakasle eta hainbat eta hainbat lanetan: txosten, mintzaldi eta abarretan maisuki gidaria, lagundu eta babestu gintuena.

Juan San Martin, Jose M^a Satrustegi, Juan Mari Lekuona: urte luzez zuen aholku eta gidaritza eskaini baitiguzue.

Eta zelan ez eskertu eta gogorarazi gure egungo Euskaltzainburua, **Jean Harichtselhar** hainbat kontseilu, argibide, gidaritza eta laguntza eskaini eta eskaintzen baitiguzu. Jarrai bedi urte anitzetan.

Eta gaur egun Zuzendaritzako beste kideoi: **Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Andres Urrutia, eta Beñat Oihartzabali**.

Eta baita beste euskaltzain enparauoi ere: **Patxi Altuna, Miren Azkarate, Pierre Xarritton, Jean-Louis Davant, Xabier Diharce 'Iratzeder', Andres Iñigo, Xabier Kintana, Emile Larre, Patxi Ondarra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Patxi Zabaleta eta Antonio Zabala** eta, azkenik, **Andolin Eguzkitza**.

Guzti-guztiori anitz esker, ekin eta jarrai.

* * *

Eta hemen ez ditugu aipatu gabe utzi nahi, nahiz eta gaur egun batzuk joanak izan. Bakar-bakarrik zenbaitzuk aipatuko ditugu: Jean Hiriart-Urruty, Odoz Apraiz, Pierre Lafitte, Gabriel Aresti, Joxe Migel Barandiaran, Eusebio Erkiaga, Juan Gorostiaga, Damaso Intza, Polikarpo Iraizoz, Aingeru Irigarai, Federiko Krutwig, Pierre Lartzabal, Norbert Tauer, Manuel Lekuona...

Eta euskaltzain urgazle-laguntzaileak, hauekin izan baititugu eta dauzkagu harremanak: Lino Akesolo, Jacques Allières, Txillardegi, Xabier Amuriza, Martzel Andrinua, Pakita Arregi, Migel Angel Astiz, Imanol Berriatua: gure irakasle, lankide eta gidaria hainbat urtez: (Goian bego); Nikolas Alzola, Serafin Basauri, Jon Etxaide, Karmelo Etxenagusia, Juan Angel Etxebarria, Salvador Garmendia, Juan Luis Goikoetxea, Xabier Gereño, Mariano Izeta, Pedro de Yrizar, Mitxel Itzaina, Mikel Lasa, Xabier Lete, Jose Antonio Loidi, Gerardo Lopez de Guereñu, Fernando Mendizabal, Joseba Intxausti, Juan Mari Torrealdei, Juan Bautista Merino Urrutia...

Telesforo Monzón, Luis Mari Mujika, Plácido Mugika, Jesus Olega, Ignacio Omaetxebarria, Santiago Onaindia, Josu Oregi, Jaime Kerexeta, Rudolf de Rijk, Carlos Santamaria, Patxi Urizarren, Jokin Zaitegi, Mikel Zarate, An-

brozio Zatarain, Augustin Zubikarai, Jesus Atxa, Jan Braun, Jose María Jimeno Jurío...

Jose Antonio Retolaza, Suzuko Tamura, Yu.VI. Zitsar, Jose Antonio Aduz, Xabier Altzibar, Dionosio Amundarain, Juan Apezetxea, Jose Mari Arnalde, Xabier Aranburu, Xipri Arbelbide, Adolfo Arejita, Josu Arenaza, Joxe Agustin Arrieta, Bernardo Atxaga, Mikel Atxaga...

Gorka Aulestia, Gotzon Aurrekoetxea, Luis Baraiazarra, Joseba Butron, Kepa Enbeita, Maretzel Ensunza, Pello Esnal, Ana Mari Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Juan Manuel Etxebarria, Igone Etxebarria, Pilartxo Etxebarria, Luzien Etxezarreta, Hiazinto Fernandorena, Salome Gabunia...

Iñaki Gaminde, Sebastian Garcia Trujillo, Jose Garmendia, Jose Angel Irigarai, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Ramuntxo Kanblong, Jon Kortazar, Joseba Andoni Lakarra, Daniel Landart, Andu Lertxundi, Kuan Antonio Letamendia, Xabier Lete...

Xabier Mendiguren, Fernando Mendizabal, Jose Antonio Mijika, Abel Muniategi, Juan Carlos Odriozola, Miren Lourdes Oñederra, Jean-Baptiste Orpustan, Karlos Otegi, Rosa Miren Pagola, Patxiku Perurena, Georges Rebuschi, Karmele Rotaetxe, Andoni Sagarna...

Patxi Salaberri, Periko Sancristoval, Jose Mari Sanchez Carrión, Joseba Sarrionandia, Iñaki Segurola, Natela Sturua, Ana Maria Toledo, Patri Urkizu, Jose Maria Velez de Mendizabal, Xarles Videgain, Mikel Zalbide, Koldo Zuzo, Joxe Ramon Zubimendi...

Eta Euskaltzain ez diren zenbaitzuk, baina bai euskal eremuan dabiltzanak, aipatuko ditugu: Joseba Agirregeazkuenaga, Kasildo Alkorta, Kepa Altanaga, Jose Aranzabal, Aurelia Arkotxa...

Jon Artatxo, Isaak Atutxa, Jon Aurre, Gidor Bilbao, Iñaki Camino, Jon Casenave, Arantza Egia, Juan Martin Elexpuru, Xabier Erdozia, Izaskun Etxebeste, Gabriel Fraile, Patxi Galé, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Patxi Iñigo, Iñaki Irazabalbeitia, Alan King, Juan Luis Laskurain, Gotzon Lobera, Jesus Mari Makatzaga...

Jose Maria Makua, Elena Martinez de Madina, Manu Ormazabal, Lourdes Otaegi, Paskual Rekalde, Patxi Salaberri Muñoa, Koro Segurola, Miriam Urkia, Amaia Usabiaga, Txomin Solabarrieta, Iñaki Sarriugarte, Maribi Unamuno, Eneko Barrutia, Joserra Bilbao, Jazinto Iturbe, Juanjo Respaldiza, Jesus Mari Txurruka, Maia Julian, Olalde Ander...

Beste alde batetik gure inguruko kide, laguntzaileak, hots: Fernando Aranberri, Saturnino Ajuriagojeaskoa, Felix Magunazelaia, Miren Josune Ariztondo, Jon Ajuria, Jaime Martinez, Juantxu Lejarraga, Iñaki Muniategi, Carlos Zarraga, Fernando Muñozguren, Joseba Euba, Iñaki Lozano, Sebastian An-

goitia, Natxo de Felipe, Edorta Bilbao, Jose Mari Sors, Goio eta Santi Xaka, Jose Juan Gallastegi, Jon Elorriaga, Ander Manterola, Sabino Egileor, Jose Antonio Sarasola, Jesus Mari Etxebarria, Jose Luis Iturrieta...

Gorka Martinez, Jose Ignacio Hualde, Ana Madariaga, David Zabala, Fernin eta Juan Mari Iraolagoitia, Mikel Astelarra, Antton Aurre, Edorta Bilbao, Jesus Arzubiaga, Joseba Mirena Mendia, Josu Lavin, Jose Angel Iribar, Ruper Ormaza, Asier Muniategi, Xabier Uriarte, Jesus Eguzkitza, Erramun Osa, Eneko Oregi, Xabier Alberdi, Joseba Zallo...

Gontzal Mendibil, Joseba Zulaika, Gotzon Garate, Agustin Ozamiz, Koldo Artola, Jose Arakistain, Iturrate Iñigo, Elortegi Josu, Javier Saizar, Luis Alberto Oleagordia, Blanca Urgell, Josu Legarreta, Isabel Octavio, Juan Ignacio Intxaurreaga, Juan Azurmendi....

* * *

Hirugarren: Anitz esker, duela hogeita bost urte hasi baikinen lanean Euskaltzaindian. Orduan Erakundera heltzen ziren kontsultei erantzuten eta, hemen egia berretsi behar dut, nire hasiera-hasiera egunetan Nere Altunak, omendu kideak, benetako laguntza eskaini baitzidan bai erantzunetan eta bai makinatze eta txosten, hitzaldi-orraketetan orduan ez baikenuen ordenagailurik ez eta Internetik ere.

* * *

Laugarren: Esku bete esker bai Euskal Herri mailan eta gure Herritik kanpora argitalpen eremuan ari diren Fotokonposizio, Inprimategi, Argitaletxe, banatzaile, filmazio eta CD-ROM ekoizlariari ... hauengandik ikasi izan baitugu argitalpen eremuko xehetasun tekniko, zuzenketa erak, argitalpenen taitutze, maketatze eta abar.

Eta, adibide erara, hemen aipatuko nahi nuke Euskaltzaindian kaleratu genuen lehen argitalpena, hots:

Euskararen Libururu Zuria, beronen koordinatzaile, oraintsu omendua izan den eta osasunez larri-larri aurkitzen den Martin Ugalde jauna. Hemendik bidali nahi dizkiot Martini gure eskerrik beroenak hura izan baitzen nire lehen irakaslea argitalpen eremuan eta gero etorri dira, goian aipaturiko beste hainbat eta hainbat laguntzaile, gidari eta aholkulari.

Bosgarren eta azkenik, eskertu gura ditugu euskal eremu, euskara esparruan: irakaskuntzan, literaturagintzan, argitalpen eta biblioteketetan eta txostengile eta hitzaldien bidez Axularren hizkuntzan sinetsi eta aurrera egin duten guztiak: euskaltzain ohorezko, urgazle eta Euskal Herri mailan eta munduan zehar gure Hizkuntzaz arduratu eta kezkatu direnak eta baita aldi

berberean **Euskera** irakaskuntzan, idazkietan eta abarretan bultzatu, babestu eta zaintzen ahaleginu direnak.

Beraz, jarraiko eslogan hau guretzat hartzen dugu:

“Delakoak barriz bere burua gizonago baino ez eban egin, hantxe autor-tuz euskararen alderako bere atxikimendua”.

Eta amaitzeko, “**Ondo esanak gogoan hartu eta txarto esandakoak barkatu**”.

Bilbo, egoitza, 2001-XI-30

Nere Altuna,

Ricardo Badiola Uriarte.